


Heri Aldizkaria

otomoto

2001eko otsaila 64. alea



Behiak aztergai

IRITZIZ-IRITZI: GORKA OJANGUREN
ELKARRIZKETAK: F.J. DE MIGUEL ETA FELIX AZURMENDI
IZERDI PATSETAN: ZIKLO KROSSAREN ITZULERA

OTAMOTZ ALDIZKARIARI ZEURE BULTZADATXOA

Gogoratuko duzuen bezela, azkenaldi honetan urtero proposatzen dizuegu OTAMOTZ aldizkarirako **borondatezko harpidetza (suskripzioa)** egiteko aukera Zintzo-Mintzoko **bazkide ez zaretenoi**; aldizkaria etxean jasotzen duen bakoitzak, **nahi izanez gero**, urtean kuota txiki bat ordaintzeko aukera, alegia.

2001. urterako gauza bera proposatu nahi genizueke, izan ere Otamotz kaleratzeak sortarazten dizkigun gastuak estaltzeko guztion laguntza beharko baitugu.

Oraingoan ere zeure esku geratzen da diru-kopurua aukeratzea. Proposamena bidezkoa iruditzen baldin bazaizu, bete ondoko fitxa, eta ekarri Zintzo-Mintzoren egoitzara (Labeaga kalea 12, etxeazpia), edo zuzen-zuzenean egin dirusarrera kontu honetan: **KUTXA: 0010242378**.

COLABORA CON LA REVISTA OTAMOTZ

Después de varios años trabajando día a día por la calidad de información en la revista OTAMOTZ, ya sois cerca de 2000 personas quienes mensualmente recibís la misma en vuestras casas.

Al igual que el pasado año, os proponemos, de cara al año 2001, para que colaboréis con una pequeña cuota anual (**suscripción voluntaria**), al objeto de afrontar los gastos que la edición de la revista conlleva a la asociación Zintzo-Mintzo.

Dinos tú mism@ la cantidad que quieras aportar, rellenando la ficha adjunta y entregándola en la asociación Zintzo-Mintzo (C/ Labeaga 12, bajo -Urretxu-, junto a la S.D. Goierri). También puedes ingresar tu aportación en la siguiente cta. cte: **KUTXA: 0010242378**.

OTAMOTZ ALDIZKARIA

BORONDATEZKO HARPIDETZA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Urtean kuota hau ordainduko nuke:

-1.000 pta

-1.500 pta

-2.000 pta

Kontu kte. zkia:

Kutxa edo bankua:

Herria:

ESKOLA PUBLIKOA

etorkizunerako aukera



2 urtetik 20 urte arteko kalitatezko eskaintza



Tel.-faxes: 943 72 12 14
e-mail: info.gainzuri@educanet.net
Sta. Barbara bidea z/g.
URRETXU



J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
Tel.-faxes: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
URRETXU



60 hamarkada hasieran Zumarragako parrokiako koruari ateratako argazkia. Goitik behera eta ezkerretik eskubira: Goiko ilaran: Eduardo Peinado, Diego Angel Larrañaga, Iñaki Legorburu, Jose Mari Agirrebeña.

2. ilaran: Kerejeta, Daniel Ibarzabal, Pedro Garziandia, Ibarzabal, Pedro Elgarresta, Jose Luis Ruiz eta Garziandia.

3. ilaran: Balentin Agirrebeña, Cayetano Larrañaga, Gil, Manolo Garin, Ascensio Uribesalgo, Nicasio Garziandia, Elias Madina, Iñaki Sarobe eta Luis Mari Garin.

4. ilaran: Maite Antia, Alicia Arizkuren, Miren Antia, M^a Angeles Idiakez, Mertxe Elzo, Julia Arana, Nati Albisua, Begoña Plazaola eta M^a Dolores Larrañaga.

5. ilara: M^a Casilda Ibarzabal, M^a Carmen Alvarez, Juani Kerejeta, Beatriz Agirrebeña, Don Joaquin Pildain, M^a Jesus Mendizabal, M^a Carmen Ruiz, M^a Gloria Arozena eta M^a Carmen Gomez.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

Zintzo-Mintzoren itsaski zozketako irabazleak



Zuetako askok jakingo duzuen bezala, Zintzo-Mintzo elkarteak itsaskiez betetako saski bat zozketatzen ari da hilabetero. Lehen zozketa San Martin egunaren bezperan izan zen eta ondoren Santa Lutzi bezperan, Errege gauean eta otsailaren 2an ere otar bana zozketatu dira. Santa Lutzi bezperakoan, irabazleak argazkian itsaskiekin gustura asko ikus ditzakezuen Adelina Ugarte eta Luis Mari Zabaleta izan ziren. Adelina eta Luis Mari senar-emazteak, oñatiarrak dira eta Fagor enpresako altzarien sailan lan egiten dute. Lantoki berean lan egiten duen Alberto Moyua urretxuarrak saldu zien zenbaki irabazlea zuen txartela eta bertan tokatu zela ikusirik Fagorreko langileek ehundik gora txartel erosi zituzten hurrengo zozketarako. Martxoko zozketa hilaren 2an izango da, hilabetero bezala, Ederrena pilotalekuko kantinan arratsaldeko 7etan. Hilabete osoa duzue oraindik, beraz, txartelak erosteko. Zozketa egunean ere, kantinan bertan txartelak erosi, itsaski saski bat irabazi eta Zintzo-Mintzori laguntza txiki bat eskaintzeko aukera izango duzue.

Muntai polizialen aurkako Salatzen plataformaren bilera

Euren atxiloketa, gartzelaratzea, leporatzen zaiena eta egingo zaien epaiketara muntaia poliziala direla salatzen duten Zumarraga eta Urretxuko hiru gazteri laguntzeko Salatzen plataforma sortu da Urretxu-Zumarragan. Plataforma honen sustatzaileek gazteen bertsioa ezagutzera eman eta herritarrei partaidetza eskatu zieten bi herriotako buzoietan banatutako idatzi baten bitartez eta urtarrilaren 31an plataformak lehen bilera izan zuen Urretxuko Kultur Etxean.


Banatutako idatziaren arabera, 1998ko apirilaren 30ean, Urretxuko bi gazte mendian buelta bat ematen ari ziren eta jende multzo batek inguratu zituen. Bi

gazteak bananduak izan ziren eta banan banan inguruko borda batera eraman eta botila batzuk ikutzera behartu zituzten. Ondoren, mehatxu eta irainen artean, Zumarragako Ertzaintzaren basera jaitsi, Lege Antiterroristapean zeudela ezagutarazi eta Arkautera eraman zituzten. Arkauten hiru egun eman zituzten ziega batean umilazio eta tortura psikologikoen pean, eta ondoren Audientzia Nazionalera eraman zituzten. Deklaratu ondoren, inolako frogarik gabe, bi gazteak Alcalamecon sartu zituzten eta bietatik adin txikikoa zenak bertan hilabete eman zuen eta besteak bi hilabete. Milioi erdiko fidantza ordaindu ondoren baldintzapeko askatasu-

nean geratu ziren.

Bi gazte hauen atxiloketaren ondorengo egunean ertzainak beste gazte baten etxean sartu ziren eta auzian inkulpatu zuten. Gazte hau bere kabuz aurkeztu zen Audientzia Nazionalen, non kargurik gabe aske geratu zen. Hiru urteren ostean, gazte hau berriz inplikatu dute eta sei urteko gartzela zigorra eskatzen du fiskalak. Beste biak ere antzeko egoeran daude: adin txikikoa zenari hiru eta beste-ari sei urteko zigorra eskatzen dizkie fiskalak. Honek lehegailuen fabrikazioa, edukitzea eta biltegiatzea, talde armatuarekin lankidetzeta eta "Y" taldeetako kide izatea leporatzen die.

Ferretería BRAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Edurne Iturbe, EITBren Trikitixa Txapelketan irabazle

Edurne Iturbe trikitilari urretxuarrak, Oihana Irastorza oiartzuarrarekin batera, beste behin eta hirugarren aldiz, EITBk antolatzen duen Trikitixa Txapelketa irabazi zuen abenduaren 16an Tolosan. Finalaren egunean Edurnek Legorretan kontzertu bat eskaini eta ondoren Tolosara joateko asmoa zuen. Baina kontzertuan zegoela, telefonoz deitu zioten eta lehenbailehen Tolosara joateko esan zioten, finalean jotzen lehenak izatea suertatu baizitzairen. Legorretako emanaldia utzi, finalerako jantzi eta urduri jartzeko astirik gabe eman zion hasiera finalari. Edurnek eta Oihanak Edurnek berak konposatutako eta Antton Kazabonen hitzak zituzten trikitixa, porrusalda, fandango eta arin-arina jo zituzten. Zortzi bikoteek saioa amaitu ostean, eta epaimahaiak bere erabakia hartu bitartean,



Edurne Iturbe Oihana Irastorza panderojole oiartzuarrarekin.

urretxuarrak eta oiartzuarrak 99an irabazitako txapelketa bereko saria jaso zuten. Jadanik hiru txapela lortu dituen arren, Edurnek hurrengo txapelketara ere aurkezteko asmoa du eta txapela irabazi nahi duenak berari kendu beharko diola dio.

Sasietaren opariak Gabonetan

Sasieta Mankomunitateak zaborrarekin dugun arazoa dela eta, birziklapena behar dugula jakinarazteko sentsibilizazio kanpaina bereziak prestatu ohi ditu urtero. Amaitu berria den 2000. urteko kanpainaren atal nagusia Gabonekin bat heldu zen. Izan ere, Sasieta Mankomunitateak egutegia eta bideo joko bat oparitu baititu. Egutegia mahai gainean edukitzen den horietakoa da eta komiki moduko diseinua du. Goierriko herrietako jaiak, azoka bereziak eta festa herrikoiak biltzen dituen egutegi hau Goierriko etxe guztietan banatu zen Gabonetan. Bestalde, Sasietak guz-

tiontzat eskuragarri den bideo joko bat ere prestatu du. Bideo jokoaren protagonista Sasietaren maskota den Sasi da eta bere eginkizuna zaborra suntsitzea da. Joko hau betiko marzianitoen jokoen antzekoa da eta berau eskuratzeko bi modu daude: Azkarrena Sasietaren web gunean sartu eta bertatik jaistea da, baina Sasieta Mankomunitatera gure datuak bidaliz gero ere etxean joko jaso dezakegu. Bestalde, gogoratu diseinu sari bat jaso berri duen Sasietaren web orriko lehiaketan parte hartuz gero opariak irabazteko aukera ederra duzuela.

ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA


Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

“Mantxut?” lokuzio liburuaren aurkezpena



Urtarrilaren 17an Asisko Urmeneta komikilari nafarrak “Mantxut?” lokuzioen liburuaren aurkeztu zuen Urretxuko Kultur Etxean. Argia aldizkariak argitaratu duen liburu honen egileak euren buruari “Zazpiak Batman” izena jarri dioten Asisko bera eta beste sei lagun dira. “Mantxut?” gazteentzako hizkuntz erregistroen bilduma da eta bere helburua euskaldunon hizkera kolokiala aberasteko tresna izatea da, erdarazko errekurtsoetara jo beharra izan ez dezagun. Metaforen gainean eraikitako erregistroak erabiltzeko duen gatz eta piperra gazteen ahotan jartzea ariketa astuna izan ez dadin, 3 liburu argitaratuko dira. Urretxun aurkeztu zen “Mantxut?” hiruretatik lehena da eta 64 orrialdetan, bere marrazkiaz eta gaztelarazko, frantsesezko eta ingelesezko baliokideez lagundurik, beste hainbat lokuzio biltzen ditu. Esamolde hauetako batzuk klasikoengandik jaso dituzte, beste hainbat eskualde ezberdinetan erabiltzen direnetatik eta beste batzuk “Zapiak Batman”ekoek eurek asmatu dituzte. Liburuaren aurkezpena hasi aurretik Asiskorekin izan ginen eta irailaz geroztik liburudendetan 1.200 pezetatan salgai den liburuaren berri eman zigun.

Zer da “Mantxut?”?

Hizkuntzari beldurra galtzeko eta akademizismo zurrunetik ihes egiteko ariketa bat da, ez gure bidea jarrai dezaten populuari eman nahi diogun katixima bat. Hizkuntza norberak bere gustura molda dezakeen bitarteko plastiko bat dela erri-bindikatu nahi izan dugu. Horretarako gazte jendeari zuzenduriko lokuzio bilduma bat egin dugu, gure adierazkortasunean izan dezakegun zuloa estali dezagun. Bilduma egiteko euskal altxor orokorra arakatu dugu, zenbait eskualdetako euskaldunek erabiltzen dituzten esamolde batzuk bildu ditugu eta beste zenbait guk asmatu ditugu.

Zein irizpide erabili duzue zuek asmatutako lokuzioetan?

Umorea nagusiki. Lan nagusia egin dugun Jon Alonso eta biok Iruñearrak gara eta gure inguruaren eta umorearen arabera asmatu ditugu. Beharbada hauek ez dira esportagarriak gainontzeko lekue-tara, baina helburua gazteek eurak ere honelakoak asmatzeko gai direla ikus dezaten da. Garai batean hizkuntzak klasi-kotzat hartzen ditugun lokuzioak edo esapideak garatu bazituen, egun ere hizkuntza bizia dago eta hiztunok honelakoak sortzeko ahalmena dugu.

Kaleko hizkeran gabezia larria somatu duzue beraz...

Hala da. Euskaraz tximeleta esateko 14 hitz omen daude, baina nola esan, ordea, “tener el mono”, “pija”, “me voy a hacer una paja”... era ez literarioan? Gaztelaraz ere nonbaiten eta zerbaitegatik sortuko ziren eta euskaraz ere egin daiteke. Euskaldunoi argi gorri batzuk piztu zaizkigu: bata hitanoaren galtzea da, bestea metaforak sortzeko ahalmena da. Hizkuntza herdoiltzen utzi dugu eta zoritxarrez euskaraz lehendakaria, apezpikuak eta ostatuetan ibiltzen garenok maila berean ari gara. Guk mailakatzeko bat proposatzen dugu: eskoletan “diezazukete” eta antzeko aditzak ikastea ondo dago, baina ostatuetan argota sortu beharrean gaude ez badugu erdarara joan nahi. “Hortera” erabiltzen badugu, gainera, zuberotar batek ez du zertan ulertu beharrik. Komikilaria naitenez, kezka hau betidanik izan dut.

“Mantxut?” hiru liburutan lehena da...

Bai, baina gehiago ere aterako ditugu, bilduma bat ateratzeko asmoa baitugu. Sarean webgune bat irekitzeko asmoa dugu jendearen ekarpenak biltzeko. Izan ere, gehienok ekialdean bizi gara eta mendebaldetik ere ekarpen politak egiten ari zaizkigu. Biltzen goazen heinean libu-

ruxka berriak kaleratzeko asmoa dugu.

Liburuaren kalean eraginik izaten ari den nabaritu al duzue?

Nire ustez euskaldun gaixoa gaur egun nahiko kokildua bizi da “Bazkaltzaindiaren” iritzi aldaketak direla eta. Hizkuntzaz gozatzeko parada galtzen ari gara; klasikoaren edozein liburu hartuz gero askatasun ikaragarria zutela ikusten dugu: hizkuntz sena ikaragarria zuten eta hizkuntza gozaten zuten. Hizkuntz bizia zela ikusten da eta ez egun idatzi behar duguna. Gozatzeko bideak berreskuratu beharra ditugu, euskara zernahi adierazteko aukera ematen duen oso hizkuntza plastikoa baita. Ingelesean, adibidez, egunero sortzen dira metafora bisualak.

Bukatzeko, nagusiki komikilaria zaren arren, telebista eta irratan ere aritu zara. Non aritzen zara erosoago?

Egiazko Asisko paper aurrean jartzen dena da. Irratian pertsonaia bat saltzen dut, gidoi batean oinarriturik, eta jendea nolabait engainatu, pertsonaia hori ez baita benetako Asisko. Telebistan, irratan bezala, pertsonaia bat saltzen dut baina are konplexuagoa, irudia ere sartzen baita. Zenbat eta bitartekoa aberatsagoa orduan eta faltsuago eta alderantziz.

Merkataritza Euskalduntzeko Plana

Txindoki Zaharreko berriak



Jaione, Mikel, Monika, Mari, Mertxe eta Eba Txindoki Zaharreko jantokian.

Geltokietako betiko taberna honetara haize berriak iritsi dira, eta freskotasunarekin batera euskara. Beti ere tradizioaren barruan, aldaketen eragilea Mari Sánchez da, Txindoki Zaharreko arduraduna. Berak, Aitziber alabaren laguntzarekin, gaztez osatutako lantalde majoa osatu du. Karta ere berri du. Karta berrian bokadillo, plater konbinatu, kazuelatxo eta pintxo aukera zabala dago. Bertan, mokadu goxo bat jan nahi duenak nahiz afaltzeko asmoa duenak non aukeratua izango du.

Mokadutxo bat hautatzerakoan, pintxo guztien artean, Marik rabak gomendatzen dizkigu. Txindokin berezitasunen bat bada rabak omen dira eta.

Afaltzeko ordea, Txindokikoek ahalegin berezia egin dute. Tabernan bertan dauden mahaiez gain, jantokia ireki berri dute. Afal ordurako, hiru aukera daude: plater konbinatuak, kazuelatxoak eta bokadilloak. Plater konbinatuak dira nagusi (solomoa, entsalada, piperrak...) denetik dute hamaika konbinazio ezberdinetan. Kazuelatxoaren artean, bakailao eta piper-beteenak dira bezeroen artean estimatuenak. Eta bokata bila dabilzanak ere izango dute afari pasada egiteko modua.

Herrian bertan, bertatik bertara, gartzetaldetik honek aukera zabala eskaintzen dio tripa zorriak isildu nahi dituenari. Beraz, on egin!!

**RENEDO** argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXU

☎ 725682 ☎ 722292

**MAPFRE**

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA

943 72 13 70

**ARBUPE**

PALACIO ORIENTAL
TXINATAR JATETXEA

7 urteko esperientziak bermatutako
kalitatea eta zerbitzua

Janaria etxera eramaten dugu

☎ 943 72 52 43

Labeaga 33

URRETXU

**URRETXU**

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonaen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68



Gorka Ojanguren

128 urte

“Entzutegi nazionaleko fiskalak 128 urteko zigorra eskatu du 6 gazterentzat “kale borrokagatik”.” (GARA 2000ko irailaren 29a)”

Egia esan tarte honetan idazteko aukera eskaini zidatenean, ardoaz, tabernen ordutegiaz, gasolinaren garestitzeaz, internetez, eta Maria Teresa Camposen programaz ere hitz egiteko prest nengoen; baina... 128 urte! Hauek Galiziako behirik famatuenak baino pitzatuago zeudek -izan zen burura etorri zitzaidan lehena.

Begiek jasotako astinaldiaz errekupeztatzean eta titularren azpian zioena irakurri ondoren, gazte horietako bakoitzak 20 urte bete beharko zituela gartzelan ohartu nintzen. 20 urte! bizitza laurdenarekin batera osoa ere galdu liteke epe horretan.


Erokeria harekin jarraituz eta orrialde hartatik irten gabe, gobernu espainiarrak adintxikikoen erantzunkizun penala erreformatzeko buruturiko lege proposamenaz mintzo zen egunkaria (irakurtze soilak beldurra ematen duen horietakoa). Jarraian, betikoa: elkarrizketan hasteko ETAK su-etena aldarrikatzea eta armak uztea ezinbesteko

baldintza dela, Iturgaitzek lehendakari izan nahi duela eta gauzak asko aldatzen ez badira bihar ere euria egingo duela. Bitartean presoak urrun eta gu... gu auskalo non. Eguneroko errutina iluna azken finean.

Ez dakit beste 128 urte beharko diren arazo hau konpontzeko baina beharbada ikastolak ixten hasten direnean, euskaraz hitz egitea “terrorismoaren apologiaren” barnean sartzean edo txapela eramatea kaputxa eramatea bezain “deliktibo eta antikonstituzionala” denean, konturatu gara zein errez bihur daitezkeen baldintzak aitzakia.

Erokeria dela? Bai, akaso bai, baina ez fiskalak eskatutako 128 urteak baino handiagoa.

(Oharra: artikulua hau 2000ko urrirako idatzia zegoen, baina zoritxarrez gauza batzuk aldatzen ez direnez, ordukoak orain ere baliogarri izaten jarraitzen du).



BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA

Inauteriak atsegin al dituzu? Nola ospatzen dituzu?



Aitor Zabaleta

Dudarik gabe. Urtero ezberdin mozorroturik ateratzen naiz eta aurten ere prestatuko dut zer edo zer. Egutero ateratzen gara eta afaria ere egiten dugu. Parranda egiteko primerakoak dira inauteriak!



Maite Amilibia

Atsegin ditut, bai. Legazpiarra naizenez, ostiraletan jada mozorroturik ateratzen naiz. Norbaiti aurreko urtean erabili duen mozorrotoren bat eskatu, koadrilako afaria egin eta ondoren sekulako parranda egiten dugu!



Edurne Garcia

Ni ere Legazpikoa naizenez, ostiraletan ateratzen gara jada. Nire ustez, Legazpin ostiraletan ateratzeko ohitura hartu zenetik lehen baino giro hobea dago. Inauterietatik gehien atsegin dudana parranda egitea da.




Xabier Soraluze

Lehengusua ehiztaria denez, berari jantzia eskatu eta ehiztariz mozorroturik aterako naiz. Asteartean, berriz, beste zer edo zertaz jantziko naiz. Klasekook afaria egiteko ohitura dugu eta primeran pasatzen dugu.



Unai Arteta

Urtero klasekook mozorroa prestatu eta berdin jatzten gara. Oraindik irakasleak ez digu esan aurten zertaz jantziko garen. Iaz, adibidez, danborreroz jantzi ginen eta oso ondo pasa nuen.



Unai Lucena

Inauterietan oso ondo pasatzen dut, mozorrotzea asko atsegin baitut. Gainera, astearte arratsaldean eskolan merienda eta festa izaten dugunez, ez dugu klaserik izaten.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

✚ kutxa.

*fundazioa
fundación*

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbri.a

- Dietetika
- Estetika


Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak


Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Zein dago ero hemen?



Azken hilabeteotan "behi eroen" gaiak eguraldiarena baztertu du igogailuetan. Baina, barneratu dezakegun informazioa baino gehiago heltzen zaigu eta ez behar bezain argia. Zergatik zabaldu da gaixotasun hau? Nola kutsa daiteke? Benetan arriskutsua al da egoera? Zer neurri hartu dira? Hau guztia pixka bat argitu nahian, arazoan benetan murgildurik daudenengana jotzea erabaki genuen eta Jose Inazio Aldasoro albaitariarekin, Iñaki Zunzunegi abeltzainarekin eta Juanjo Otaegi harakinarekin izan ginen.

Jose Inazio Aldasoro albaitari ormaiztegiarrak Urretxu, Zumarraga eta inguruko beste hainbat herritako baserritarrekin lan egiten du. Azkenaldian kalean "behi eroen gaixotasuna" bezala ezagutzen denak bere eguneroko lanean ere eragina izan du: gaixotasunaz informatu behar izan da, hartu diren neurriak jakiteko bilerak izan ditu eta hauetako batzuk abian jartzeaz arduratu da. Hori dela eta, berarengana jo dugu zenbait gauza argitu nahien. Jose Inaziok bi gauza argi utzi dizkigu: alde batetik, arazoa ez dela komunikabideetan azaldu den bezain larria eta bestetik jada abian jarri diren kontrolei esker, behi haragia jatea sekula baino seguruagoa dela egun.



Zer da entzefalopatia espongiformea, behi eroen gaixotasuna izenez ezagunagoa?

Burmuina eta erdiko nerbio sistema kaltetzen ditu eta batik bat ardietan eta behietan agertzen da. Ardietan Scrapie izena du eta 1737ko idatzietan azaltzen da jada. Abelburu oso gutxitan ematen zenez eta diagnostikatzen zaila zenez ez zitzaion garrantzi handirik eman. Baina 80 hamarkadan Britainia Haundian zenbait kasu

agertu ziren. Ordutik egindako ikerketen ondoren prioiaren teoria nagusitu da. Honen arabera gaixotasun oso bereziaren aurrean gaude, proteina bat baita, eta ez bakterio edo birusa, infekzioaren eragilea. Biologiaren legeak hausten dituen gaixotasun iraultzailea izanik, asko kostatzen ari da ondo ezagutzera. Gaixotasuna zerk sortzen duen, bere sintomak zeintzuk diren eta proteinak organismoan zabalteko eta kutsagarria bihurtzeko zenbat denbora

behar duen badakigu. Sintomak azaldu eta hiru bat hilabetera animalia hil egiten da eta oraingo ez dago sendagairik.

Nola hartu dute gaixotasuna behiek?

Teoria nagusiaren arabera gaixotasun hau ardietatik behietara pasa da. Nola? administrazioei asko produzitzea komeni zaienez eta abeltzantzan irabazi marjenak oso txikiak direnez, dena aprobetxatu beharra dago. Ondorioz mendian

hiltzen ziren ardiak egosi, haragiaz irin merkea egin eta behiei ematen zitzairen. Egosiz gero, desinfekzioa lortzen zela uste zen eta horregatik zeuden baimenduak hildako animaliez egindako irinak. Baina orain jakin denez gaixotasun hau sortzen duen proteina askoz ere tenperatura altuagoan erre beharra dago berarekin bukatzeko.

Nolatan zabaldu da hainbeste gaixotasuna behien artean?

Gaixotasuna Ingalaterran azaldu zen eta bere jatorria eta eragina oso argi egon ez arren, Europar Elkartearen indar haundia dutenez, ez zitzaizkien mugak itxi eta bai pentsurako zuten irin mordoak baita kaltetuta ez zeudela ziruditen behiak ere saldu dituzte. Hori dela eta, gaixotasuna Ingalaterratik kanpo ere zabaldu da eta izurrite bihurtu da. Bestalde, nahiz eta txahal jaioberria erosi, ama gaixo bazegoen denborarekin gaixotasuna garatuko du. Gauzak legeak agintzen zuen bezala egin izan balira, zein behi gaixo egon zitekeen jakingo genukeen, Foru Aldundiak behi guztien jatorria eta bestelako datuak izan behar ko baitzituzkeen.


Zer arrisku du gaixotasunak gizakiontzat?

Pertsonengan Creubs-Jacobs izenaz ezagutzen da eta behi haragia janaz kutsatu daitekeela uste da, baina ez dirudi oso kutsagarria denik, oraingoz ehun pertsona baino gutxiagok soilik hartu baitute European. Beraz arazoa ez da komunikabideek aditzera eman duten bezain kezagarria. Behia janez kutsatu gaitezkeen arren, behiaren zati batzuk soilik dira benetan arriskutsuak, bertara zabaltzen baita batik bat proteina kaltegarria: burmuina, nerbio sistema zentrala, bizkarrezur muina, begiak, amigdalak eta hesteak batik bat. Bestalde, giltzurrunek, plazentak, gibelak eta birikek ere arriskua dute, baina oso txikia. Giharretan, bihotzean eta esnean, berriz, ez da sekula priori kaltegarria topatu. Normalean jaten ditugun behiaren zatiek arriskurik ez dutenez, jendea orainarte jan duenarengatik ere lasai egon dadila.

Arriskua hain txikia bada, zer dela eta uste duzu sortu dela psikosi hau?

Komunikabideek sekulako eragin izan dute, egunero gai honen inguruan nahastera garamatzen informazioa zabaldu

baita. Honek norbaitek ezkutuko interesak dituela pentsatzera narama. Batzuek EE.BBen errua dela diote, beraiek gaixotasuna ez dutenez behi piloak esportatzeko asmoa dutelakoan. Ez dakit honek sinesgarritasuna duen, baina bai gaixotasun honi buruzko informazio gehiegi eta okerra zabaldu dela. Bestalde, PPren gobernua hemendik arazorik ez zegoen irudia eman



“24 hilabetetik beherako behiek ezin diote gizakiari gaixotasuna kutsatu”

nahi zuen, baina frogak egitera behartu dituztenean benetako egoera ikusten ari gara, berandu beti bezala. Neurriak lehenago eta lasaitzeko moduan hartu behar ziren eta ez iskanbila hau guztia sortzen utzi: behi gaixoak azaltzea ona da, egoera kontrolatzen den seinalea baita.

Zeintzuk dira zehazki behi gehiago gaixotu ez daitezen eta gaixotasuna gizakira pasa ez dadin hartu diren neurriak?

Hiltegitik pasatzen diren animalia guztiei frogak egiten zaie. Batek gaixotasun hau duela ikusten bada, bere jabeak dituen guztiak ere hil egingo dira, oraingoz animalia gaixo dagoen jakiteko frogak hilda dagoela soilik egin baitaiteke. Dena den, aurki frogak bizirik egin ahal izatea espero da eta ez dira susmagarriak direnak hil

beharko. Bestalde, behiei haragizko irina ematea 97az geroztik debekatua dago, baina orain gizakia elikatzeko zuzendua dagoen animalia orori ematea ere debekatu dute eta animalien proteinak debekatu dituzte gizakion kontsumorako, beraz ezingo dugu gaixotasun hau animalien gandik hartu. Horretaz gain, albaitariok susmagarria den animalia bat ikusten badugu kompetentziadun administrazioari jakinarazi behar diogu eta hau hiltegia eramateaz arduratuko da. Azkenik, gaixorik hildako animaliak aztertzeko biltzen ari dira, ondoren beraiekin irina egin eta hau zementu enpresetan erretzen ari da.

Dena den, frogak 24 hilabetetik gorakoek soilik egin behar zaie...

Hala da, baina laborategietan egindako frogetan hiru urtetik gorakoek soilik kutsa dezaketela gizakia argi ikusi da. Dena den, kontsumitzailea lasaitu dadin, zenbait neurri hartu dira gazteagoekin: bi urtetik gorako guztiei frogak egiten zaie, urtebete eta bi urte bitarteko organu arriskutsuenak merkatura eramatea debekatu da eta bi urte azpiko txahal edo arkume bat hiltegia eraman aurretik, baserritarrek eta albaitariok gaixo dagoen susmorik ez dugula sinatu behar dugu. Ondorioz, sekula baino berme haundiagoa duen haragia jaten ari gara jada.

Nafarroan behi gaixo batzuk azaldu dira jada, Hego Euskal Herrian gehiago azalduko al dira?


Baliteke, hemen ere irinadun pentsua emango baitzitzairen behiei. Baserritarrek saltzen diotena ematen diete behiei. Pentsua hemen egina bada, ez litzake kaltegarria izan behar, hemen ez baitzegoen gaixotasun hau. Baina administrazioak ezin du ziurtatu kanpoko irina sartu ez denik. Bestalde, baliteke kanpokoa zuen ama gaixoak kutsatu izana, kanpotik ekarritako animalia izatea... Dena den, ez dut uste Euskal Herrian kasu gehiegirik azalduko direnik, hemen animaliak loditzeko erabiltzen diren teknikak garbiagoak baitira. Baserritar gehienak ez direnez baserritik bizi, behi gutxi dituzte eta irabazi txikia ematen diete. Hori dela eta, ez diote errentabilitateari begiratzen eta modu tradizionalean loditzen dituzte. Nola lan egiten duten ondo asko dakit, lanean eman ditudan urteetan ez dut animalia susmagarri ikusi eta EAEn frogak egiten hasi direnetik ez da animalia gaixorik azaldu.

Iñaki Zunzunegi: "Behi eroen arazoaren iturburua abeltzantza intentsiboa da"

Zunzunegi familiak 28 behi ditu Olarte baserrian. Txahalak hazi eta haragitarako saltzen urte asko daramatzatenez, oso ondo ezagutzen dituzte behi abeltzantzaren nondik-norakoak. Hori dela eta, argi zuten azkeneko hamarkadetan Europako zenbait gobernuren onespenez landu den abeltzantza intentsiboaren ondorio lazgarriak halako batean argitara aterako zirela. Izan ere, Iñaki Zunzunegiren ustez, behi eroen arazoaren iturburua abeltzantza intentsibo hori da: "Abeltzantza eta nekazaritza intentsiboak ahalik eta kostu txikienez ahalik eta gehien produzitu nahi du, asko produzitzearen bidez merke saldu nahi du. Ustiapen edo esplotazio haundietan behi mordoa, guztiak pilatuta, izaten da. Honek behiak gaixotzeko arriskua areagotzen du. Behiei hildako animaliez egindako pentsu merkeak ematen zaizkie, klenbuterolaz eta bestelakoez lehenbailehen puztu... Maiorista gutxi batzuek mundu osoa hornitu nahi dute merke produzituz eta, noski, orain ikusten ari gara kalitatea jaisteak dakartzan ondorioak. Baina hau ez da behiekin soilik ematen, gainontzeko animaliekin ere berdin lan egiten baitute, nahiz eta hauen kasuan ondorioak oraindik argitara ez diren atera. Barazkiekin ere antzera gertatzen da: pestizida mordoa botatzen zaizkie, barazki transgenikoez gero eta indar gehiago dute... eta honek ere bere kalteak ekarriko ditu".

Dena den, Euskal Herrian, bertako produktuak kontsumituz gero behintzat, lasaiago egoteko arrazorik ba omen dugu. "Hemen betidanik nekazaritza eta abeltzantza estentsiboaren eredia jarraitu dugu eta bertako sindikatuak ere lurrari loturiko abeltzantza eta nekazaritzaren aldekoak dira. Behi guztiak belarraz ezin ditugu elikatu eta pentsua ere ematen diegu, baina Euskal Herrian ez diegu hildako animaliekin egindako pentsurik ematen behiei, zerealekin egindakoa baizik. Argi dago animaliekin egindako pentsua oso txarra izan behar dela, ganadua ez baita haragijalea. Hemen, behar bada, zenbait gauza gaizki egingo ditugu, baina ziur naiz hemen baino hobea ez dela inon lan egiten".

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritza eta baita baserriarrak ere nahiko lasai dau-



Iñaki Zunzunegi Olarte baserrian duen zezenarekin.

dela dio Iñakik: "Eusko Jaurlaritzarekin bilera bat izan genuen eta EAEn behi zoririk ez zela azalduko uste zutela esan ziguten. Guk ganadua nola elikatzen dugun bazekitela eta bat edo beste agertzen bazen, kanpotik ekarritakoa izango zela". Benetako egoera ezagutzea uste izan honek bultzatuko zuen beharbada jaurlari-

"Merkea eta ona produzitzea ezinezkoa da, ea jendea konturatzen den"

tza hemengo behiei egin beharreko frogan gastuari berak aurre egitera. "Behi eroen gaixotasunaren testa animalia hilda dagoe-la soilik egin daiteke momentuz eta beraz, hiltegiaren egingo diete froga guk eramandako animaliei. Froga hauek egiteko 2.500 milioi pezeta gastatuko ditu jaurlaritzak aurtan. Espainiako gobernuak gustura hartu zuen jaurlaritzaren erabakia, beraien egoera gurea baino askoz ere okerragoa baita: hiltegiak blokeatu egin dira, gana-

duaren hondakinekin zer egin ez dutenez animaliak hiltzeari utzi baitiote. Hemen errausketa-labea martxan jarri denez, ez da halakorik gertatu".

Dena den, zuzen lan egiten ari direla dakiten arren, euskal abeltzainek ere badute kezkatzeko motiburik: "96az geroztik genuen gaitz honen berri.

Hasieran urrutiko kontua zela zirudien, baina pixkanaka hurbiltzen joan da eta hemen oraindik kasurik eman ez den arren, gaixotasuna hildako animaliez egindako pentsua emategatik soilik ez dela sortzen ere esaten dute eta kasuren bat agertuz gero hartuko diren neurrien beldur gara. Hori bai, edozein neurri dela ere, gobernuarentzat gastu handia izango da. Egia esan, nik uste beraiek ere ez dakitela nola konpondu arazoa".

Hartuko diren neurriak euren kalterako izan badaitezke ere, arazoa argitara atera izanaz pozik dira Iñaki eta bere aita: "Beharbada guk behea joko dugu, baina beste batzuek ere jo dezatela eta behingoz lehertu dadila egoera. Izan ere, sekulako txerrikeriak egiten dituztenekin lehiatu ezinik gabiltza aspaldian. Beraien parean jartzeko merke saldu beharra dugu, nahiz eta beraiek baino hobeto lan egin eta txahala hiru hilabete gehiago gizentzen izan.

Askotan, saldu ezinik ibiltzen gara, merke-agoak diren kanpokoak erosten baitituzte”.

Iñakiren eta bere aitaren ustez larridura honek guztiak zenbait gauza aldatzeko balioko du, “honek guztiak gobernuen jendeari behingoz begiak irekiarazteko balio izatea espero dugu. Izan ere, gobernuak diru piloa gastatu beharko dute arazoa konpontzeko eta jendeak merkea eta ona

ezinezkoa dela ikusiko du. Epe motzera zein erabaki hartu euren ikusiko dute, baina epe luzerako konponbidea lortzeko arazoa sustraietik moztu beharra dago eta honek abeltzantza estentsiboa bultzatzea suposatzen du. Bestetik, jendea erosten duenaz informatzen hasi beharko da eta pixka bat gehiago ordaintzea komeni zaiola konturatzera espero dugu”.

Juanjo Otaegi: “Arazoak ez du salmentetan eragina izan”

Harakinek ere badute, noski, zeresanik azken hilabeteotan hizpide bihurtu den gai honetan. Izan ere, beraiek dira kontsumitzaileen beldurra eta mesfidantza pairatu dezaketen lehenengoak. Dena den, Juanjo Otaegi zumarragar harakinak esan digunez, berak ez du behi haragiaren salmentetan beherakadarik nabaritu: “Jendea urduri dabil baina nik ez nuke esango salmentak gehiegi jaitsi direnik. Bezeroek asko galdetzen dute: ea ekartzen ditudan txahalak hemengoak diren... Informazio oso garbirik ere ez da ematen eta erraiak txarrak zirela esan zutenean, adibidez, gibel gutxiago saldu zen. Baina orainarte arazoa behiekin izan da eta harategietan gehienbat txekor gazteak saltzen dira”.

Juanjok ez du uste aurrerantzean ere arazo honek beraiei gehiegi kaltetuko dienik, baina bai ordea behiekin lan egiten duten gainontzekoei: “Ekonomikoki arazo handiak ekar ditzake honek guztiak. Harakinok beharbada arazo ekonomikoa izango dugu, baina ganadua hazten duen jendeak pairatuko du gehiago. Orainarteko irtenbidea behi kaltetu bat azalduz gero inguruko guztiak hiltzea izan da eta honek abeltzainak porrotera eraman ditzake. Noski, gobernuak laguntzaren bat eman beharko diete eta azkenean asko kostako zaigu denoi”.

“Arazo honek abeltzain asko porrotera eramango ditu”

Nire ustez gaixotasun hau betidanik egon da, zergatik azaldu diren orain hainbeste kasu? beharbada lehen baino gehiago kontrolatzen delako. Espainiako gobernuak ere duela hilabete pare bat arazorik ez zegoela zioen, baina frogak egiten hasi direnean behi gaixoak azaldu dira. Arazoa Europa osoan ematen da, baina positibo kasu gehiago behi gehiago dauden lekuetan azalduko dira, noski. Duela gutxi, adibidez, Orkoien bi behi gaixo azaldu ziren eta herri horretan behiak ia urte guztian mendian ibiltzen dira. Beraz, ez dago ziur esaterik arazoaren erruduna pentsua, esplotazio handietan lan egiteko era... edo zer den. Hori bai, egungo egoerara iritsi izanaren erru handia administrazioek dute, arazoa azaldu zenean ezkutatu eta garaiz irtenbideak aurkitzen saiatu ez zirelako”.

Dena den, Juanjoren ustez, kontsumitzaileak lasai egon behar dira, “orainarte zehazki zer gertatu den ez dakit, baina hemendik aurrera Europa guztian kontrol berdinak ezarriko dira eta denok hortik pasa beharko dugu. Hemendik aurrera hiltegitik ateratzen den haragi guztia garbia izango da, beraz. Baina gaiak hainbeste zeresan eman duenez jendeak urduritasuna galtzea hilabete batzuk kostako da. Jendea lasai egon dadila, teknikoek ere urduritasunerako arrazoirik ez dagoela diote eta”.

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



HAR GOR
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Nekolalde, 3 baxua
☎ 943 72 44 42



HARGOR
Artisautza - arropak - opariak
Nekolalde, 1
☎ 943 72 56 58



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA




Felix Azurmendi:

Bikario Nagusi berria

“Sekularrek partaidetza haundiagoa izan beharko dute”

Felix Azurmendi urretxuar apaiza Bikario Nagusi izendatu berria du Jose Maria? Uriarte Donostiako gotzaiak eta urtarrilaren 15ean estrainatu zuen kargua. Felix Urretxun jaio eta Ipeñarrieta kaleko “Kamineroen etxean” bizi izan zen 9 urte bete bitartean. Adin horretan Donostia joan zen bizitzera aitak bertan lanpostua aurkitu baitzuen. Urretxutik aspaldi alde egin bazuen ere, bizi-bizirik ditu Urretxun bizi izandako urteetako oroitzapenak eta bere burua urretxuar peto-petotzat du. Noizean behin herrira etorri izan da lana dela eta, baina kargu berria hartu ostean are gehiagotan etorriko da gotzaintza eta Gipuzkoako parrokia ezberdinen arteko harremanetaz arduratuko baita. Gotzaintzaren bulegotan berarekin elkartu eta bere lanaz, euskal elizaz zein gizarteaz solasaldi interesgarria izan genuen.



25 urtetan apaiz

- Bi urte Matximenta eta Beizamako erretore eta Urolako gaztediaren arduradun.
- Bi urte Trintxerpen erretore.
- Zazpi urtetan elizbarrutiko gaztediaren arduradun.
- Zazpi urtetan Gizakia Helbururen Gipuzkoako zuzendaria.
- Hiru urtez Itziargo erretore eta aldi berean Gotzaintzaren ordezkari Caritasen.
- Urte sabatikoak hartu eta monastegi ezberdinetara joan izan da otoitz egitera.
- Bikario Nagusia urtarrilaren 15az geroztik.

Nolatan sartu zinen apaiz?

Seminaria 13 urterekin joan nintzen eta Urretxuko apaizaz nuen irudi onak bultzaturik joan nintzela uste dut. Pausu hau gehiegi pentsatu gabea izan zen eta pertsona baten irudiaren eraginak gutxi irauten duenez, lehen pausua emateko besterik ez zuen balio izan. Batxilergo ikasketak Donostian egin nituen adin bereko gaintzeko gazteekin eta bukatu nuenean historia ikasi nahi nuen, baina Euskal Herrian historia irakasle gabeziarik ez zegoenez, teologia ikasi eta apaiz sartzea erabaki nuen. Izan ere, ordurako argi ikusten zen fedearen eta ebangelioaren etorkizunaz arduratuko zirenak gutxiago izango zirela. Urtarrileko hirugarren astean 25 urte bete ditut apaiz lanetan.

Zelatan aukeratu zaituzte bikario kargurako?

Bikarioa gotzainak izendatzen du, baina lehenago kontsulta bat egoten da. Apaizek, elizbarrutiko pastoral kontseiluek, erlijioso-erlijiosek... euren izenak proposatzen dituzte. Sondeo honetatik hamar botatuenak atera ziren eta lehen aipatutakoek bozketa berri batean hamar hauen artean gustukoena bozkatu zuten. Gotzainari lau botatuenak zeintzuk diren esan zitzaion eta berak lau hauen artean bi gustukoena aukeratu zituen: Patxi Azpitarte beizamarra eta ni neu. Hemendik aurrera bi bikario nagusi izango gara, beraz, eta Uriarte gotzainak gure izendapenaren berri eman digunean, hiruron artean gotzain bat osatu behar dugula esan digu.

Zein izango da zuen lana?

Bera kuriaren (gotzaitegiaren) arduradun izango da eta bertako idazkaritzak eta ordezkariak (gazte pastoralak, Caritas, misioak...) koordinatuko ditu. Ni, berriz, Gipuzkoan zehar ibiliko naiz parrokiak zehar. Lehentasunetako bat egitura pastoral (pastoral barruti) berriak egitea dela uste dut eta hau antolatzen saiatuko naiz. Zergatik? Apaiz gutxiago eta zaharragoak gaudenez, 10-20 urtetan zer gerta daitekeen aurrikusi eta gure parrokiak eta arzi-prestargoak nola antolatu pentsatu beharra dugu. Nire ustez, sekularrek orain ez duten, baina berez izan beharko luketen, partaidetza eta ardura hartu beharko dute. Arrazoi berarengatik taldeak egin beharko dira lurralde batez arduratzeko eta parro-

kiaren mugak gaintitu egin beharko dira. Talde hauek sekularrek, erlijiosoek eta apaizek osatuko dituzte. Sekularrak gehiago izango direnez, pisu haundiagoa eraman beharko dute. Nire lana parrokiak jendearekin batera, herrietara joanaz, antolaketa berri hau zehaztu eta martxan jarzea izango da.

Etorbizuneko elizaren ardura sekularren esku ikusten duzu beraz...

Beharrezkoak izango diren arren, ez dugu indarra apaizengan jarri behar, elkarrengan baizik. Apaiz gutxi eta zaharrak daudelako gaizki gaudela esaten da, baina ez dut uste egungo egoera okerragoa denik, eredu eta antolaketa berria eskatzen duela baizik. Eredu zaharrera ohituta gaudenez, kosta egingo zaigu berrira moldatzera, baina eredu berria hobea izan daitekeela uste dut: eliza apalagoa izango da baina partaidetza handiagoa izango du.

Apaiz kopuruaz gain, fededun kopurua ere jaitsi da...

Egia da fede arazo bat dagoela, baina erlijioa bizitzeko era aldatu dela ere uste dut. Lehen ia herri guztia joaten zen igandeko mezatarra, baina orain fede hori askatasun haundiagoz bizi da eta jende gutxiago joaten da mezatarra. Hala ere, egia da Jainkoaren eta erlijioaren garrantzia gizar-tean asko aldatu dela eta bere presentzia ere galdu duela. Batez ere, gazteengan hau emateak kezkatzen gaitu, lekukoa pasa beharra baitugu. Lan ebanjelizatzailea egin behar dugu gure mezua gazteengana hel dadin. Fedeak indarra galdu du, baina lehen zegoen guztia fede al zen? Krisi hau jipoi bat da, baina ez al da ere garbitasuna?

Gaiak aldatuz, nola ikusten duzu elizaren papera Euskal Herriko gatazka politikoan?

Nire ustez elizak bere eginkizuna du gatazka honetan: Gasteizen egin zen bilkuran argi ikusi zen gizarteak elizari zerbait egitea eskatzen diola. Alderdiek bere estrategia dute eta norbaitek arrazionalitatea jarri behar du, nire ustez hau eliza izan daiteke: prozesu politikoari ikuspegi etikoa eman behar diogu. Elizaren eginkizuna bitartekaritza lana izan behar da eta denon arteko elkarrizketarako oihu handi bat egin behar dugu PPK eta ETak sortzen

duten polarizazioa gaintitzeko, gizartea ez baitago hain polarizaturik. Bestalde, elizaren zeregin berezkoa, kontzientziak hezitzea eta adiskidetze lana egitea, ere izan behar da.

Arazo politikoak landuko duen elkarrizketaren alde dago euskal eliza...

Eliztarrek eta instituzioa bereizi behar dira. Eliztarrek bere ikuspuntua defendatzeko eskubidea dute. Erakundeak ez du politikarik izan behar, baina gertatzen dena oinarrian arazo politiko bat dago eta elkarrizketaren helburua kontsentsu politiko berri batera iristea izan behar da, batzuek onartu nahi ez duten arren.

“Euskal elizak bizi dugun gatazka oinarri politikoak duela esateagatik jaso ditu horrenbeste kritika”

Estatu mailako elizaren ikuspuntua bera al da?

Bertan egoteak egoera hobe ulertzen laguntzen digu. Urruti dagoena entzuten duenarekin gelditzen da eta ez dut uste ikuspegi bera izango dutenik hemendik kanpoko gotzainek. Dena den, Euskal Herrikan kanpoko gotzaintzetako arduradunek zein Aita Santuak elkarrizketa hitza erabili izan dute, baina interesatzen ez zaien ez diete kasu haundirik egin.

Zuen jarrerak Espainia aldetik jasan dituen kritika bortitzek, zer pentsa emango dizue...

Kritika hauek guztiak oso mingarriak dira eta asko sufritu dugu, baina estrategiak hain enfrentatuta daudenean, dena dago politizatuta eta oso zaila da manipulatu izango ez den hitzen bat esatea. Iritziak eta hitzak ezin dituztela onartu ikustea da mingarriena. Bortizkeria ez dela salatu esaten da eta hori gezurra da, baina irudi hori zabaltzea interesatzen zaie. Zergatik hartu da hain gaizki elizak orain narte hartu duen jarrera? Ez bortizkeria salatu ez delako, salatu baita, hemengo gatazka oinarri politikoak duela esan dugulako baizik, ez baitute hau entzun nahi.

Gotzain Uriarte denetik erasoak baretu egin dira...

Nire ustez, gotzain aldetarekin Gipuzkoako gotzaintzak bere jarrera aldatu duenaren ideia zabaltzea komeni da. Hau ez da horrela, bi gotzainak ezberdinak diren arren, denborak argi erakutsiko du elizak ez duela bere jarrera aldatu. Estrategien egoera honetan, norberari eliza bere alde izatea komeni zaio eta hori lortu nahian lanean dabiltzala uste dut. Baina elizak, erakundeak, independentzia eta errealitatearekiko leialtasuna izan behar du.

Setien eta Uriarte definitzen ausartuko al zinateke?

Setien oso gizon azkarra da eta bere argitasun hori herriaren eta elizaren zerbitzura jarri du. Oso pertsona leial, egizale eta exigentea da, bere buruarekin zein bestekin. Baita librea ere. Kargua utzi zuenean pozik zegoela esan zuenean, ez zen momentuko poza, elizbarrutian trantsizio ona egin ondoren gotzain ona etorri zelako baizik. Izan ere, Uriarte ere oso gizon ona

eta azkarra da, baina beste era bateko inteligentzia du. Heziketaz psikologoa denez, intuizioa askoz ere gehiago erabiltzen du eta bere bihotzari azaltzen uzten dio. Setienek, berriz, zuzenbide kanonikoa ikasi zuen eta askoz ere zerebralagoa eta analitikoagoa da. Nahiz eta bihotz handia duen, ez dio bere buruari sentimenduak azaltzeko aukerarik ematen.

Bukatzeko, hainbeste urtetan Urretxutik kanpo bizi ondoren, nola ikusten duzu herria?

Azken urteotan lan bileretara joan naiz, batez ere Zumarragara. Hori bai, Santa Lutzitan urtero joaten saiatzen naiz. Iaz gotzainak egun horretan bilera batera deitu zigun eta ezin izan nintzen joan. Luis Mari Segurola Zumarragako parrokoak eta nik gure kexa azaldu genion eta datorren urtean halakorik ez egitea espero dut! Gaiari helduz, Urretxu oso aldatuta ikusten dut: txikitan parrokiara joateari herrira joatea esaten genion, parrokiara bidean ia ez baitzegoen etxerik eta oso urrun geratzen zela baitzirudien. Orain, ordea, dena etxez beteta dago eta herria asko hobetu dela uste dut. Herri batetik bestera pasatzeko jarri diren pasabideak oso onuragarriak iruditzen zaizkit.

De Miguel anaiak

Kalejiratik Euskadiko Orkestrara

Francisco Javier De Miguel Koldo Mitxelena Kulturunean eskaini zuten emanaldi batean.



Francisco Javier eta Luis Octavio De Miguel anaiak oso gaztetan hasi ziren musika munduan eta txistua jotzen urte batzuk eman ondoren, flauta eta bibolina jotzen ikas-teari ekin zioten. Musika ikasketak amaitu zituztenetik irakaskuntzan dihardute. Baina musikari ororen grina bere

musika tresna jotzea denez, hainbat orkestretan ere jotzen dute hala eskatzen dietenean, Euskadiko Orkestra Sinfonikoan esaterako. Fco. Javierrekin hitz egiten izan gara eta musika barrokoa jorratuko duen laukote bat osatu berri duela ere esan digu.

Nolatan bi anaiak musikariak?

Ama izan zen musika munduan murgildu gintuena, berak matrikulatu baigintuen, oso gazteak ginela, "Jostenka" Larrañagak eta Santi Gutierrezek zeramaten txistu eskolan. Han hiru urte eman genituen musika ikasten eta handik Secundino Esnaola Musika Eskolara pasatu ginen. Honi guztiari esker, musika gure bokazioa zela argi ikusi genuen eta musika ikasketak egitea erabaki genuen.

Txistua jotzen hasi zineten, baina gero musika tresna aldatu zenuten...

Bai, anaiak bibolina eta nik flauta

"Orkestrako musikarien lana ez da bizitza osorako lana, gogorra baita"

aukeratu nuen. Secundino Esnaola Musika Eskolan hasi ginen garaietan txistua tresna folkloriko gisa soilik ikusten zen oraindik eta musika gure lanbidea izatea nahi bagenuen musika tresna berriak aukeratzea gomendatu ziguten. Izan ere, musika ikas-

ten ari garela, txistuak musikari eskatzen diogun guztia ez digula ematen jabetzen gara. Dena den, txistua jotzen nuen garaiaz oroitzapen zoragarria dut. Igande goizero ateratzen ginen eta ikasgelan ere lagunarteko giro bikaina genuen. Ikasteaz gain, lagun asko egin eta asko jolasten genuen. Oraindik ere anaia eta biok txistua jotzeko gai gara eta duela urte pare bat Santi Gutierrezen egin zitzaion omenaldian jo genuen azkenekoz jendaurrean.

Zergatik aukeratu zenuen xirula?

Zenbait ikertzailek, musika-tresna espresio bide bat denez, bakoitzak bere

izakerari ondoen doakiona hautatzen duela esaten dute. Honela, konplexutasuna eta ariketa matematikoak askatzea gustuko dutenek pianoa aukeratzen dutela esaten dute. Taldeko harremanak atsegin dituzten pertsona irekiek, berriz, haize-instrumentuak hautatzen omen dituzte. Xirula hauen barne sartzen da eta erakargarria zitzaidalako soilik hautatu banuen ere, baliteke teoria honek arrazoia izatea. Hau guztia ikusirik, gure ikasleei musika-tresna hautatu aurretik denak frogatzen uzten diegu ondoen doakiena hauta dezaten. Askotan, euren izakera ikusirik, badakigu bakoitzak zein aukeratuko duen.

Urretxu-Zumarragatik atera ostean, non ibili zinen ikasten?

Secundino Esnaola eskolatik atera ostean, Donostiako kontserbatorioan ikasi nuen. Lizentziatura lortu ondoren ezer gutxi nekiela ikusi nuen eta Baionan beste hiru urte eman nituen ikasten. Oposaketak egiten hasi nintzen arren, hobetzeko asmoz, Parisen eman nituen beste bi urte. Izañ ere, musika alorrean ere etengabeko formakuntza ezinbestekoa da.

Orain musika irakaslea zara, baina zenbait orkestratan ere jotzen duzu...

Anaia eta biok Euskadiko Orkestra Sinfonikoan kolaboratzailerak gara. Ordezkapenak egiteko oposaketak egin genituen eta jendea behar dutenean deitu egiten digute. Orkestran xirula gutxi daudenez, behin bakarrik jo dut beraiekin, baina anaiak gehiagotan jo du. Bestalde Iruñeko Pablo Sarasate orkestran ere jotzen dut deitzen didatenean.

Zer iritzi duzu Euskadiko Orkestra Sinfonikoaz?

Oso maila ona duen orkestra da, orkestran errumaniarrak, errusiarrak... daude eta haize-sekzioan frantses eskola-koak dira nagusi. Europako beste herrialdeetatik etorritako musikari hauek oso garrantzitsuak dira bertakoon teknika

hobetzeko. Lastima da hain plaza gutxi egotea. Oposaketak europar guztiei zabalik daudenez oso zaila da sartzea. Gainera, orkestra sortu berria denez, duela gutxi sartu den musikari asko dago bertan eta momentuz ez dago bakanterik. Dena den, orkestrako musikarien bizitza oso gogorra da eta ez da bizitza osorako lana. Asko ikasten da orkestra batean joz, baina urte

“Musika garaikidea elitista da eta ez dut uste etorkizunean entzungo denik”



Francisco Javier, duela urte batzuk, Zumarragako bandarekin jotzen.

batzuk igaro ondoren jendeak utzi egiten du eta irakaskuntzan lanean hasi ohi da. Hori dela eta, Euskadiko orkestran ere denborarekin bakanteak izango dira eta urte batzuetan behintzat orkestran jotzeko aukera izatea gustatuko litzaidake. Aukera honen zain bizitza guztia egon ezin gaitzkeenez, nire eskola berean irakasleak diren hiru lagunekin talde bat osatu dugu. Errepertorioa entsaiatzen ari gara eta hila-bete gutxitara jotzen hastea espero dugu

eta herrian ere kontzerturen bat eskaintzea gustatuko litzaidake.

Zeintzuk dira osatu berri duzun laukotearen ezaugarriak?

Bi xirula, pianoa eta txeloaz osatutako laukotea da eta musika barrokoa jotzeko asmoa dugu. Esan bezala, orain errepertorioa prestatzen ari gara eta Bach landuko dugu batez ere. Izan ere, musikari gehienon ustez oso sortzaile aberatsa da, behin eta berriro interpretatuz bere musikak gauza berriak aurkitzeko aukera eskaintzen baitu. Nire konpositorik gustukoena dela esango nuke.

Musika barrokoa atsegin duzula diozu, zer iritzi duzu musika garaikideaz?

Nire ustez musikaren, armoniaren eta tonalitatearen, berezko garapena jarraitu du eta giza entzumenetik kanpo dauden esparruetara heldu da. Hau da, gure musika esperientziazatik, folkloretik... alden du da eta ondorioz, entzulearengandik ere bai. Hori dela eta, nahiz eta musika garaikide ona badagoen, oso musika elitista da eta nire ustez ez da etorkizunean entzungo. Amaitu berria den mende honetan artearen beste alorretan ere aurrekoarekin hautsi nahi izan da eta jende askok ez du ulertzen. Musika hezkuntza haundia izan behar da musika garaikidearen mezu erradikala jasotzeko.

Nola ikusten duzu bertako musikarien egoera?

Estatu mailan musikari ez zaio Europako beste lekuetan bezainbesteko garrantzirik ematen eta

Espainiako gobernua orain musika ikasketak eskoletatik kendu nahia honen adierazle argia da. Musika ikasteko aukera bokazioa dugunon esku soilik utzi behar dute eta beste herrialdeetan, berriz, oso gaztetatik haur guztiei irakasten zaie musika. Ondorioz, helduen artean ere zaletasun haundiagoa dago. Euskal Herrian zaletasun haundia dagoen arren, ez da zaletasun hau behar adina gara dadin beharrezko oinarria jartzen.

OTSAILERKO AGENDA

9, ostirala

Zacarias Maletaren pintura erakusketa Itarte Etxean. 18ra arte ikusgai.

13, asteartea

-7etatik 9etara, Kultur Etxean, Javier Soto margolariaren eskutik oleo pintura ikastaroari hasiera ematea.

Asteartero izango da maiatzaren 29a arte. Izen-ematea: Kultur Etxean (toki mugatuak).

14, asteazkena

-4etan, Kultur Etxean, Eroskiko kide baten hitzaldia (Mairi emakumeen elkartea).

-5etatik 7ak arte, Kultur Etxean, "Bainika, gurutze-puntua eta gantxillo ikastaroa"ren lehen klase eguna. (Harizpi Elkartea).

15 asteartetan jarraian izango da. Izen-ematea: Kultur Etxean (toki mugatuak).

-7etan, Juan de Lizarazu Erakusketa Aretoan, "Gipuzkoan barrena gurpilka. 1900-1950" argazki erakusketaren inaugurazioa.

Otsailaren 28a bitartean izango da ikusgai.

20, asteartea

-8etan, Kultur Etxean, trikiritxa eta perkusio bikotea: Donato Goienetxe eta Edurne Iturberen musika emanaldia.

21, asteazkena

-5etatik 8etara, Urretxuko liburutegian haurrentzako eskulanak (karetak,

girnaldak... inauterietako festa giroan).

22, osteguna

-Ostegun gizona: goizean, ogitarteko eta laranja banaketa eskoletan.

-Zuhaitz eguna: goizean, eskola umeekin, zuhatz landaketa herrian.

-5etatik 8etara, Urretxuko liburutegian, haurrentzako eskulanak (karetak, girnaldak... inauterietako festa giroan).

-6:30etan: Legazpi Dorretxean Secundino Esnaola Musika Ikastetxeko ikasleen Inauterietako kontzertua.

23, ostirala

-Inauteriak: arratsaldean zehar ikastetxeen desfileak eta 5etan, Areizaga-Kalebarren plazan, dantzaldia Akelarre taldearekin.

24, larunbata

-Inauteriak: Goizean Urretxuko baserrietan Lurra Dantza Taldeak "Goizuetako Inauteriak" antzestu eta dantzatuko ditu.

12etan, Iparragirre Balerdi Musika Tailerraren kalejira Urretxun.

6etatik aurrera: Urretxuko kaleetan "Goizuetako Inauteriak" Lurraren eskutik. Amaieran, Gernikako Arbola Plazan, jaialdia eskainiko dute.

25, igandea

-Goierri K.E.ren irteera: Sarria-Gorbeia-Mairulegorreta-Murua.

27, asteartea

-Inauteriak: 4etatik aurrera, inauterietako asteartea ospatzea (Mairi emakumeen elkartea).

Astero: -Astelehenero, 4etan Kultur Etxean, Mairiko emakumeen eskulanak.

-Larunbatero, 11etatik 1ak arte, Larunbatetan Festara (haurrentzako eskulanak) Kultur Etxean.

-Igandero 4:30etan haurrentzako zinea Pagoeta Antzokian Zintzo-Mintzok antolatuturik. Sarrera: 150 pta.

-Igandero txistularien kalejira Zumarragan eta Urretxun.

TXIKIMOTZ

“Orainarte egin ditugun kirol guztietan gustura aritu gara”

Joseba, Haritz, Jokin, Marko, Maria, Iker, Ion Ander, Asier, Marcos, Unai eta Iñaki Lehen Hezkuntzako 4. maila ikasten ari dira Gainzuri Ikastetxean eta, beraz, aurtengo ikasturtea eskola kirolean aritzen diren bigarrena da.

Iaz futboleant, saskibaloian, eskubaloian, herri kirolean, igeriketan eta atletismoan aritu zirela esan ziguten eta aurten pilotan ere arituko omen dira.

Aurten Itsaso entrenatzaileak lagundurik futboleant, herri kirolean eta igeriketan aritu dira jada eta orain saskibaloian dabilta. Gehienek futbola gustukoan duten arren, gainontzeko kirolean ere gustura aritzen omen dira. Kirol guztietan gustura aritzen direnaren erakusle gisa, iaz partida guztiak bat izan ezik irabazi zituztela esan digute. Aurten, berriz, ez omen dabilta horren fin, baina emaitzak gutxienekoa dira.

Gabonetan zertan aritu ziren



ere galdetu diegu eta bideo jokoetan jolasten, futboleant eta (nola ez!) zorioneko patinetearekin kalean gora kalean behera ere ibili zirela esan digute.

Otamotzeko lankideok ere patinetea erosi beharko dugu, kaleko galdera egitera ateratzen garen bakoitzean ihesi joaten zaizkigunak harrapatzeko!



Aitzol, hori da hori interesante aurpegia duzuna motel! Animo, itxura horrekin 2001etan ligatzea lortuko duzu eta!



Alberto, urtebete pasa da eta ez al duzu oraindik egin beharrekoak egitea lortu? Odolki ederra botako duk! **Zorionak!**



Ander, Heidik onartu al zaitu jada bere familian? Epaileak zure musugorria ikusi bezain pronto arrazioa emango lizuke.



Ane, herrian patineterik gabe gelditu den bakarra zarelaiko al zaude horren triste? Ea urtebetetze egunean oparitzen dizuten!



Angeli, emakumea, utzizoz Josuri bere txistulari-ber-tsolari "look"arekin joaten ezkontzara! **Zorionak!**



Abenduaren 25an jaio bahitzen ere, azkar hazi haiz! Emaiek ile pixka bat Baron Rojokoei faltan zeudek eta! **Zorriak Asier!**



Asier, zer egiten duk xelebre aurpegi hori jarrita? Argazkirako fundam-entuz prestatu beharra dago! **Zorionak!**



Zoriontsua ageri zaigu gero gizona! Ea eskolako notak heltzen direnean ere horren zoriontsu ikusten zaitugun! **Zorionak!**



Edurne, behealdeko trogloditak baino zintzoagoa dirudizu familikoak zaren arren! Ez zara ba ijitoen oparia izango?



Eneritz, tente jarri zaitetz neska, Notre Dameko konkorduna dirudizu eta! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Gene, hori da hori itxura elegantea duzuna! Ea senarraren itxura ere pixka bat zaintzen duzun! **Zorionak!**



Gixane, urtero inauteriak heldu aurretik zingaraz moztortzen zara. Egutegia eta moztorio berria oparitu beharko dizugu!



Inoiz Otamotzen zoriondu bazaituzte, hona hemen erruduna. Kexu bazara, deitu 943 72 57 75 telefonora. **Zorionak Aintzane!**



Dara, aita musikaria duzula eta tuba besapean duzula etorri al zara munda? Amari ez zion ba ilusi haundirik egingo!



Inigo, hori da hori zoriontasun aurpegia, Naranjito baino inuxenteagoa dirudizu! **Zorionak** eta ondo pasa!



Jaione, katekistak kloroformoa baino okerragoak al dira? Urtero erdi lotan ikusten zaitugu... **Zorionak** eta ondo lo egin!



Joxe Mari, etziozu gehiago semeari errieta egin, beste-la herria bonbardeatuko digu eta! **Zorionak** eta ondo ibili!



Josu, intsumisioa zinela uste genuen eta hara non ekarri diguten "ejercito del airen" atara zizuten argazkia! **Zorionak!**



Libe, gurasoek heldulekua jarri al dizute alde batetik bestera eramateko? Ez zaituzte ba txintxilixka jarriko? **Zorionak!**



Luis, gustura ibili zinen gero 99ko Santa Isabeletan, baina argazki hau dela eta Urolakoen txantxak jasan beharko dituzu...



Maitane, mutu geratu al zara? Kandela gutxi izango dituzun arren, burua astinduz ezin-goto dituzu itzali! **Zorionak!**



Marta, tortikulisak jota alde batera begira gelditu al zara? Ez duzu irri-farrea galdu behintzat! **Zorionak!**



Hara! Goialdean "abiadorea" eta hemen marinela! Ejerzito profesionalak sekulako arrakasta du gure bi herriotan!



Mikel, "Triston necesita un amigo" dirudizu... Ea urtebetetze eguneko opariek aurpegia alaiarazten dizuten! **Zorionak!**



Mikel, urtebete pasa den arren, xelebre aurpegia ez zaitu aldatu! Ea behingoz gizontzen zaren! **Zorionak!**




Ruven, etorri zaitetz kamera aldera flashak ez du eta zu argitzeko adina indarririk! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Salomehe, Kaketara arratsaldero joaten jarraitzen baduzu, izena aldatu beharko duzu! **Zorionak!**



Zorionak Inaxio eta Jabieeer!!!! Bi troglodita hauek nola komunikatzen diren ikusita, ziur beraien etxekoek "Medico de familia" koen dezibelio errekorra hautsi dutela. **Zorionak** denoi eta Eliz-Kalen sonotoneak saltzen aberastuko denari.



Txaro, semea eskuz binakako txapelketatik bota dutela eta haserre izango duzu! **Zorionak** eta eskuminak Patxiri!



Ibon, 24 urte jada eta ez al duzu oraindik ikasi txistua zuri jo behar dizutela? Odolkiak ordainetan! **Zorionak!**



Sole, ea irifarre horrek eguzkia bezain dizdiratsu jarraitzen duen Josuren hurrengo parrandaren ondoren! **Zorionak!**



Uxue, kentzazu behingoz baserritar jantzia, zapia igeltseroena baino zikinagoa izango duzu jada eta! **Zorionak!**

CHIARA

Etixerako lentzeria Oparitarako gaiak

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
20700 URRETXU

TABERNA
Jaureratu
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belor-zoin
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 31 ☎ 943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilarianak
Legazpi, 5 ☎ 72 11 55
Zumarraga
Labeaga, 43 ☎ 72 16 81
Urretxu
Kale nagusia, 5 ☎ 73 04 19
Legazpi
* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU

OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA
S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA

Ziklo krossaren itzulera



Dannel Yurrebaso, Gorka Ruiz de Gordoia eta Igor Montes dira oraingoz herrian ziklo-krossean dabilzan gazte bakarrak.

Nahiz eta errepideko txirrindularitzak nagusitasuna izan gure bi herriotan, ziklo krossean aritu direnek ere zeresan ugari eman dute azken hamarkadotan. 60 hamarkadan txirrindularitza jarraitzen zutenek, esaterako, ez dute sekula Amelio Mendijur zena ahaztuko. Urretxuar honek ziklo krosserako dohai apartak zituen eta Beasainen izan zen munduko txapelketan lan bikaina egingo zuen esperantzan zen herritar asko. Zoritxarrez, txapelketa hau izan aurreko lasterketa batean Eitza jaisten ari zela auto baten aurka jo eta bizia galdu zuen istripu hartan.

70 eta 80 hamarkadetan, berriz, Jose Mari Yurrebaso izan zen Euskal Herriko zein estatuko hainbat txapelketa irabazi ostean hainbatetan munduko txapelketan parte hartzeko aukera izan zuena. Txirrindularitza utzi ostean, Espainiako hautatzaile lanetan ere aritu zen Jose Mari eta egun Goierri K.E.an ziklo krossean dabilzan mutilen prestatzaile lanetan dabil Gorka Ruiz de Gordoarekin batera.

Hego Euskal Herriko kadete mailako rankinean hamar lehenengoen artean amaitu dute

Yurrebaso zein Ruiz de Gordoia, mutilekin batera, bi herriotan ziklo krossa suspertu nahien dabilza, amaitu berria den azken hamarkada honetan ziklo krossaren praktika ia desagertzerara heldu baita Urretxun eta Zumarragan. Afizionatu mailan primeran ibili zen Iker Zabaleta izango zen ziurrenik errepideetatik gain zelaiko lasterketetan ere aritu zen azken herritarra. Iaz Jose Mari eta Gorkak euren semeak ziklo krossa egiteko asmoa zutela ikusi eta Goierri K.E.aren eta Construcciones Metalicas Urretxuren laguntzaz kirol honi bultzada emateko aukerari eutsi zioten. Aurtengo denboraldian Dannel Yurrebasori eta Gorka Ruiz de Gordoari

Igor Montes elkartu zaie eta emaitza politak lortu dituztela esan beharra dago.

15 urte dituzten mutil hauek ziklo krossean aritzeaz gain errepideko lasterketetan ere aritzen dira eta gustura asko dabilza. Dannelek eta Gorkak bigarren denboraldia amaitu berria dute eta Igorrek, berriz, aurtengo bere lehen denboraldia ziklo krossean. Bakoitzaren ezaugarriak zeintzuk diren esateko eskatu diegu eta Igorrek zirkuitu lokaztuak nahiago dituela esan digu, bizikleta bizkarrean hartzeraren behar duten zirkuitu teknikoak. Gorkak eta Dannelek, berriz, azkarragoak diren zirkuitu lehorrak nahiago dituzte.

Urtarrila amaieran bukatu dute 17 lasterketaz osatua dagoen kadete mailako Euskadiko ziklo kross denboraldia eta 40 bat txirrindulariz osatutako rankinean hamar lehenengoen artean sailkatzea lortu dute: Gorka bigarren izan da, Dannel seigarren eta Igor bederatzigarren. Gorkak,

gainera, Muxika eta Ermuako lasterketak irabazi ditu. Sailkapen hauek direla eta, Gorkak urtarrilaren 13an izan zen estatuko txapelketan Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuen eta seigarren sailkatu zen. Igorrek eta Dannelek ere parte hartu zuten eta 16. eta 17. postuan sailkatu ziren.

Esan digutenez “estatu mailako txapelketan galiziarrek eta asturiarrek oso maila ona dutela ikusi dugu. Euskal Herrian, berriz, bizkaitarrak dira nagusi. Izan ere, bertan antolatzen baitira lasterketa gehienak eta Gipuzkoan hiru lasterketa soilik antolatzen dira”. Jose Mari Yurrebasoren iritziz ere ziklo krossak gainbehera egin du Gipuzkoan “nik korritzen nuen garaian lasterketa gehiago antolatzen ziren eta lehen mailakoak gainera. Egun kadete eta jubenil mailetan garai hartan zegoen mailaren antzekoa dago, baina orain gazteek adin batera iritsi ostean ziklo krossa egiteari uzten diote, ez baitiote etorkizunik ikusten. Txirrindularitza federazioak ziklo krossa bultzatzen saiatu beharko lirateke eta komunikabideek arre-



Gorka Ruiz de Gordo

baitaiteke: “Gorka, Igor eta Dannel errepedeko lasterketetan ere aritzen dira eta ziklo kross denboraldirako prestaketa errepedekoa baino lehen hasten denez, errepedeko denboraldia gaintzekoek baino indartsuago hasten dute. Nire ustez, 20 urte bete arte denetatik egin behar da eta hortik aurrera ere ziklo krossa egiteak ez dio inongo kalterik egiten errepedean ere aritzen den txirrindulariari”.

Gorka, Igor eta Dannel bat datoz Jose Marirekin: “Iazko denboraldia sekula baino indartsuago hasi genuela nabaritu genuen eta herriko gazteak ziklo krossa egitera animatu nahi genituzke. Izan ere, gure ustez errepedeko lasterketak aspergariagoak dira eta ez dago entrenamendu oso berezirik egin beharrik ziklo krossean aritzeko. Guk klaserik ez dugun arratsaldeetan entrenatzen dugu eta gehienetan errepedean aritzen gara. Hori bai, noizean behin mendi aldera joaten gara, teknika landu ahal izateko”.



Igor Montes

ta handiagoa jarri beharko liokete. Honek diru gehiago mugitzea, txirrindulariak animatzea eta zaletuak erakartzea lortuko luke eta nire ustez ziklo krossak ahalegin hau merezi du, kirol ikusgarria baita”.

Ziklo krossak azken urteotan gainbehera egin izanak beste arrazoi batzuk ere baditu Jose Mariren ustez. “gaztetxoek ziklo krossa ez egitearen arrazoi nagusia diruarena da. Izan ere, kirol honetarako espreski prestatutako bi bizikleta behar dira lasterketetan parte hartu ahal izateko, batek matxura baldin badu bestearekin parte hartzeko, eta guraso asko ez daude gastu hau egiteko prest. Bestalde, gazteek, ikasketak direla eta, ez dute entrenatzeko denbora gehiegi eta denboraldia negu aldean izaten denez, eguraldi txarra egiten duenean entrenatu beharra dute gainera...”.

Baina ziklo krossa egiteak bere abantailak ere baditu, errepedean aritzen direnentzat osagarria eta onuragarria izan



Dannel Yurrebaso



Edurne Iturbe

Albiste laburretan irakurri duzue, Edurne Iturbe trikitilariak hirugarrenengoz irabazi du EITBk antolatzen duen trikitixa txapelketa. Oraindik Ikastolan zela, 8 urterekin, hasi zen Edurne trikitixa ikasten eta Ikastolatik atera zenerako trikitixa irakasleek jadanik irakatsi ziezaiokeen guztia ikasi zuela esan zion. Hori dela eta, berak ere trikitixa irakasteari ekin zion eta aldi berean batxilergoa amaitu eta Ingeleseko magisteritza ikasteko astia izan du. Batxilergoa amaitu duen arren, oraingoz ez du ingelesa irakasteko asmorik, trikitixa irakasteari nahikoa lanpetuta baitago. Izan ere, Zumarragan, Bergaran eta Aretxabaletan klaseak ematen ditu eta ehun neska-mutiko ingururen trikitixa irakaslea da. Dena den, magisteritza ikasteak trikitixa irakaste lanetan laguntza haundia eskaintzen diola aitortu digu, klaseak antolatzeko eta hurrekin duen harremanerako oso lagungarria baitzaio. Azkenaldi honetan, trikitixa irakasteaz gain, Donostiako kontserbatorioko perkusio katedraduna den Donatu Goienetxerekin Gipuzkoan zehar emanaldiak eskaintzen ari da.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Umetatik tramankulu elektronikoak saltseatzea gustukoa izan dudanez, ordenadoreekin zerikusia zuen lanbideren bat nahi nuen.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Umeentzat trikitixa partiturak solfeora pasatzea ordenadorez, eskiatzea...

-Bizitzeko toki bat?

Urretxu.

-Trikitixa ez izatekotan, zer musika tresna joko zenuke?

Pianoa jotzen hasi nintzen eta oraindik ere joko nuke, baina ez pieza klasikoak, jazz edo inprobisaziozkoak baizik.

-Plazarik plaza ligatzen al da?

Beharra baduzu, bai.

-Plazarik gogokoena?

Egun ez naiz plazarik plaza ibiltzen, baina entzulegorik onena entzuteko prest joaten dena da.

-Ilusio gehien egin dizun txapela?

EITBk lehen trikitixa pieza berrien txapelketa antolatzen zuen eta 14 urte nituela porrusalda sailean 2. saria lortu nuen. 14 urterekin Zabale anaiek, Gozategitarrek... parte hartu zuten txapelketa hartan bigarren saria eskuratzeak sekulako ilusioa egin zidan.

-Gustukoen duzun panderojolea?

Egun dudana. Oso gustura nago berarekin, primeran jo eta kantatzeaz gain oso alai baita.

-Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixiar ala Edurne eta Oihane?

Gu biok jotzeko oso modu ezberdina dugu, baina beste bien artean aukeratzekotan Maixa eta Ixiar aukeratuko nituzke.

-Gustuko trikitixa bikotea?

Bikote bereziki gustukorik ez dut, baina bai trikitilaria: Kepa Junkera. Sekulakoa da.

-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Inor ez bereziki.

-Ilehorriak ala beltzaranak?

Berdin zait, itxura ez da dena.

-Egindako azken oparia?

Aitari bizikletan ibiltzen denerako oparitu dizkidan betaurrekoak.

-Eta jasotakoa?

Eskiatzeko txaleko bat.

-Data bat?

99ko abenduaren 17a.

-Mutil izen bat?

Kerman, izen arraroak gustuko ditut.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Normalean DV, etxean hori erosten baitute.

-Gustuko telebista saioa?

Ez dakit zer edo zer dextentea ote dagoen!

-Bereziki gorroto duzuna?

Txutxumutxuen programetan azaltzen den jendea gorroto dut.

-Liburu bat.

"La tienda" eta "El señor de los anillos".

-Filme bat.

"Otoño en Nueva York".

-Gustuko abestia?

Ez dut bereziki atsegin dudana abestirik.

-Soinu bat.

Lasaitasunarena.

-Usain bat.

Garbitasun usaina.

-Ukitzeko...

Leuna den edozer.

-Janari bat.

Barazkiak, eta batez ere alkatxofak.

-Ura ala...

Sagardoa.



1927 geroztik
IRAKASTEN
 eta
HEZITZEN

LA SALLE - LEGAZPI ikastetxea

Iñigo Loiola kalea, 7, ☎ 943 72 50 56 - 943 72 15 14, fax 943 72 56 73, Zumarraga

E-mail: leglasalleiz@planalfa.es

Matrikulazio opea: otsailaren 5etik 16ra



Eskura ezazu Sasietaren Bideo-Jokoa!!

Jaitsi ezazu gure web-orritik: www.sasieta.net,
 edo bestela bidaliezazkiguzu zure datuak eta
 etxean jasoko duzu.

Gure helbidea: Sasieta Mankomunitatea, Martina
 Maiz 3, behea. 20200 Beasain



Ikastola, bigarren etxea



Izena emateko epea: otsailaren 5etik 16ra

Informazio bilerak: otsailaren 12an,
15:00etan edo 19:00etan, Ikastolan bertan

Telefonoa: 943 72 00 26

URRETXU
ZUMARRAGA



IKASTOLA